



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Gertatzen ari da

Konturatu garenerako, espainiar erreinuko gobernu ezak eragin ditu bere lehen biktimak. Aramis Fuster dugu alde batetik, etxerik gabe kale-gorrian geratu den Telecincoko pitonisa mitikoa. Pantailetatik baztertu zutenetik maldan behera bueltaka hasi eta orain, bururik altxa ezinda omen dabil etorkizun-iragarlea. Gorka Mañeiro da bestea, Riveraren alderdiak sortutako uriolek aurretik eraman duten etorkizun oparoko euskal politikaria. Azken zurrumurruen arabera, Alfonso Alonsoren saltxitxautoan gildak prestatzen ari dena. Jakinda, bagenekienez, gure Alonso maitea beti izan dela arrautzak jatearen aldeko-agoa.

Ebroz beherakoak, izan ere, ez dauka izenik. Bestelako patxadan gaude pasiorik gabeko gure nazio foral hone-tan, egia esan. Aura jainkotiarreko monagilloaren gidaritzapean, haritz ezkurrez egindako ogi bat urik edan gabe digeritzea baino luzeagoa den amaiera zehatzik gabeko asperduran. Azken laurtekoa Urkullurekin horixe izan baita: egonkortasun erabatekoa. Eta hori, ezerezetik ogiak sortzeko gai den okinaren isileko lanari zor diogu. Eskuak irinez baino zikintzen ez di-tuen eta bere emozioak txistua joaz kontrolatzeko gai den lehendakari in-plikatuari.

Gero dago sozialistei munduko hiri-tar izateko ohorea lapurtzeko lehian, arerio politikoz okertu den (edo ez) Pablo Iglesiasen Euskadiko kabinetea. Er-kidegoko panorama politikoa iraultze-ra datorren haize berria, lasterketa hasi aurretik pintxatu duen maillot moredun txirrindulariaren itxura har-turik. Han dena aldatzeko jaio eta he-men zerbait aldatzea konplikatu-ko di-guna. Eta ez diot txarrera ere, baina Podemosek zerbait lortu badu mo-mentuz, Kataluniako eta Euskal Herri-ko prozesu independentisten aurrean Madriletik zuzendutako galga bihur-tzea izan da. Gauzak argi adieraztea-rren: Espainia desegin ez dadin Esta-tuari ezin hobeto datorkion dikea baino ez da, orain eta hemen.

Gure herri hau, azken batean, uste duguna baino sinpleagoa da. Geuk konplikatzen ditugu geure buruak sar-ritan. Futurologia ariketa erraz bat egingo bagenu, ematen du hurrengo hauteskundeetan ere, PNV ez dela gehiegi jaitziko. Ikusteko dagoena da zenbat jaten duen alderdi unionisteta-tik. Anasagastik berak aitortu zuen au-rreko astean egindako elkarrizketa ba-tean: orain hemen baskoagoak direla lehenago espainol bakarrik sentitzen zirenak –gure telebista publikoak zere-gin horretan izan duen eta duen ga-rrantzia gehituko nioke baieztapenari akaso-. Ahaztu zitzaiona da, baskoago-ak hemen denok garela orain, ez haiek bakarrik. Eta Madriletik guri buruz di-seinatutako irudiaren neurrira eginda-ko moxorroa jantzita eramatera ohitu garela, ia ohartzeko astirik gabe.

Baskoagoak gara denok orain, bai. Betiko astakilo zintzo, langile eta hitzeko izaten jarraitzen dugu finean. 78ko txiringitoari eusteko Madrilek ezinbesteko duen Ajuria Eneko lora-

zain leiala. Jeltzaleek ez dutelako inoiz hutsik egin horretan. Hor egon dira beti, eskuak irinetan zikintzeko prest, gauden tokira ekarri gaituen egonkortasunaren alde akordioetara iristeagatik. Asuntoa azken 40 urteo-tan nork bere txiringitoari eustea izan baita. Trukean, beti, negozioren bat ateratzea. Zer uste zenuten ba? Horre-gatik dauzkagu dauzkagun errepideak, museoak, trenak eta azpiegiturak. Ho-rren kontura batzuk poltsak ondo bete dituztela? Ongizatearen izenean, onar-tzeko prest gauden bekatutxo txikiak baino ez dira horiek. Inora ez doazen gauzak, Jaunaren erreinuan.

Hauteskundeen ondorenean paradisu-rik edukiko ez dugula jakinda ere, hondoratzen ari den itsasontzian jarraitzearen edo, beste batzuen an-tzera, geure bidea egiten hastearen artean aukeratzeko ordua ailegatu zaigu. Ikasturte hasierarekin batera, ilusioa berreskuratze-ko arrazoren bat izan dezagun sikiera. Gero berandu izango baita damutzeko. •



Urkullu, bere emozioak txistua joaz kontrolatzeko gai den lehendakari inplikatu.

AMONDARAIN